

Artzaina ona, aitabitxia hobe

AEB, 2006. Zuz.: Robert De Niro. Akt.: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt. 160 min.

"The Godfather of CIA movies" goratu zuen *New York Post*-eko kritikariak.

Gabardinajantzitaharrapaketandabiltzanespien pelikulari hamaika kritika egin dizkiote dagoeneko. Gehienen sententzia, oso motela dela. Ni ez nago ados. Ez al dira jabetu pelikulak duen erritmoa azkartxo ere badela ikusle askorentzat –horko flashback festa–? Beharrik ez dela azkarra, bestela inor ez litzateke akkuratuko. Aretoko argiak piztean jendea taldetxotan marmarrean ikusiko duzue elkarri ulertu ez duen istorio zatia esplikatzen ahaleginean. Istorioak etengabe ematen ditu hari mutur berriak eta ez du aspertzeko betarik uzten, bi ordu eta erdi pasatxo iraun arren. *Munich* –gidoigile berarena– eta *Syriana* dira azkenaldian estreinatu dituzten tipo horretako filmak; horiek bezain aisa ikusten da hau, eta odol zipritzin gutxiago botatzen du.

Egin dioten beste kritika da protagonistaren hoztasunak ez duela laguntzen ikuslea berekin identifikatu dadin. Agian Matt Damon-en antzezkeran zuzendariak izango zuen eragina. De Niro funtzionatu zion *The Godfather II*-n. Ondo xuhurra zuen solasa berak gorpuzten zuen Corleone gazteak. Haren bisajeak ez du sekula baretasunik galtzen; zirkinik ere ez. Ellis Island-era siziliarrez baino ez dakiela, mutu, arribatzen den umezurtz mengela eta *famiglia* buru sendoa lotzen dituen katebegia da.

Izatez gerotan, filmaren ajea da maisulana egin nahi izan dutela eta ez dutela lortu. *The Godfather*ekin konparazioa egitera, denean galduko luke. Bigarren mailako pertsonaiak, adibidez, lauak dira. Joe Pesciren etxean protagonistak egiten duen sartu-irtenak Michael Corleonek eta Hyman Roth-enaren antza harriga-



ria du. Baina Pesciren pertsonaiak –capo batena egiten du, berriz!– ez du sakontasunik. Alec Baldwin guriguri agertzen den arren asko mejuatu behar luke bere pertsonaiak Luca Brasiren pisua izateko.

Nire hipotesia da CIAko webetik (www.cia.gov) hartu duela gidoirako inspirazioa Eric Roth-ek. Han jartzen du: "One Agency. One Community. Functioning as one team", hor duzue mafiaren *famiglia*-ren bertsio WASP-a. Segi leitzen eta: "We are the nation's first line of defense. We accomplish what others cannot accomplish and go where others cannot go" (Guk erdiesten dugu besteek erdietsi ezin dutena, gu joaten gara besteek joan ezin duten lekutara). Bada hor aparra eta bitsa. Perla distiratsuen: "Integrity. We seek and speak the truth". To, mundua salbatzen nahiko lan ez, eta zintzo demonio, gezurrik esan gabe, egiten dute. "We put Country first and Agency before self" hahor protagonistaren gatazkari erantzuna, esaldi bakarrean: Aberria aurrena eta Agentzia norbera baino lehen. Bukatzeko: "Quiet patriotism is our hallmark", ibilibili eginda hauek ere nazionalista moderatuak.

*New York Post*ekoa ahokada izanagatik pelikula balekoa da.

JON ARTANO



ERMUA

Maiatzaren 10etik 13ra arte, Cardenal Orben

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!